



Aldaketa Urnietako alkatetzan

EAJ-PNVko Uri Buru Batzarrak ezusteko albistea eman du. Mikel Pagolak alkate izateari utziko dio; Jorge Seguradok hartuko du lekukoa / 4

AIURRI

Ondarretaren historia biltzen duen erakusketa

Urrian zehar ikusgai izango da Andoaingo Bastero Kulturguneko erakusketa aretoan. Hilaren 18rako bisitaldi gidatua iragarri dute / 16



Euskaraldiaren edizio berria iristear da. Dagoeneko izena eman daiteke webgunean / 3



Burdinak gogoan hartu zituen elkarteko kideak eta Koronabirusaren biktimak / 8



Salkin elkartek egoitza berria zabaldu du Andoainen, Udalarekin lankidetzan / 10



Albisteak: Aktualitatea



Ekimenak: Kilometroak



Ekitaldiak: Burdina



Aiurri.eus gunea, eguneroko albistegia



KOMUNITATEA

EGAPE IKASTOLA URNIETA

Giza garapen jasangarria

Egape Ikastola BHI ikastolakoak Jolas eta Ekin erakundearekin bildu gara, aurtengo egitasmoa zehazteko.

Konfinamendu egoera dela, aurreko ikasturtean hainbat proiektu bertan behera geratu baziren ere, ikasturte berri honetan, eta beti ere errealitate berrira egokituz, ilusioz heldu diogu lanari.

Jolas eta Ekin-ekoekin dugun hitzarmen honen bidez DBHko irakasleek laguntza jasoko dute hainbat proiektu Ikasketa Zerbitzu bidez garatzeko. Metodologia honen helburua komunitatearen onurarako den zerbitzu bat egitea da. Era berean, ikasleek eskolan ikasten dutena gizartean indartzen eta hobetzen dute, giza-baloreak eta curriculumak zehazten dituen gaitasunak uztartuz.

Hitzarmen honi esker, Egape ikastolaren ildo pedagogiko nagusiak Jolas eta Ekin erakundearekin elkartuko dira, hala nola, Hezkuntza Kritikoa, Herri-Hezkuntza, Proiektuen Bidezko Ikasketa, metodologia parte-hartzailea, lan kooperatiboa edota Ikasketa Zerbitzua.

Jolas eta Ekin euskal hezkuntza sisteman 12 urteko ibilbidea duen aholkularitza zentroa da eta egun elkarlanean aritzen da Euskal Erkidegoko beste 11 ikastetxe eta aisialdi eskoletan.

Aurten ere, lau proiektu bideratuko ditugu, DBHko

maila bakoitzeko bat. DBH 4. mailako ikasleek Tokiko komertzioaren inguruan arituko dira eta DBH 3. mailako ikasleek globalizazioa, garapena, giza eskubideak eta kontsumoa batuko dituen proiektua landuko dute, Alboan GKEekin kolaboratuz. DBH 2. mailako ikasleek, berriz, kontsumo arduratsua eta iraunkortasuna landuko duen proiektua abian jarriko dute eta DBH 1. mailako ikasleek “giza eskubideak eta herritartasuna” gaiaren inguruko proiektua bideratuko dute.

Proiektuen ildo nagusiak adostu baditugu ere, aurtun, hainbat muga izango ditugu pandemiak sortutako egoeratik; dena den, ikasleek antolatuko dituzten ekintza edota jardueretan familien partaidetza garrantzitsua izango da, herritarren inplikazioa zenbat eta handiagoa izan proiektuen eraginkortasuna ere halakoa izango da eta. Honek gure gaztetxoak motibatuko ditu eta hiritartasunaren balioa bereganatzen lagunduko diegu.

EGAPEREN ILDO PEDAGOGIKO NAGUSIAK JOLAS ETA EGIN EKIMENAREKIN ELKARTUKO DIRA



POSTONTZIA

BURUNTZALDEKO GAZTE SORTZAILEAK BETERRI-BURUNTZA

Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak dinamika

Bizi dugun sistemak, kultura kontsumo eta aisialdi produktu soil bilakatu nahi duen garai hauetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da kulturagileok, sortzaileok, artistok, kulturako langileok... elkar saretu eta, gure eskubideak aldarrikatzearekin batera, gure izaera, nortasuna, indartuko dituen elkarguneak sortzea.

Helburu hauek hizpide, Buruntzaldean, kultura eraikitzea maite dugun zenbait gazte elkartu eta, “Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak” dinamika abiatu dugu. COVID-19aren ondorioz bizitako berrogeialdiak eta jarraian etorritako “Normaltasun Berrian” bizitzen ari garen egoera ziurgabeak mugiarazi gaitu. Derrigortutako itxialdiaren aurretik ere, bakarturik prekarioki biziraun dugu Buruntzaldeko gazte sortzaileok. Nekaturik, kolektiboki zapaltzen gaituzten gaitz estrukturaleri modu indibidualean aurre egin ezinean.

Ordutik, isolamenduak argi utzi zuen artea eta kultura lehentasunezko alderdiak direla gure bizitzetan, sorkuntza, argi izpi bilakatu zen bakardadez jositako zingira ilunean. Eta, gure agintariekin, hortaz ohartu eta, itotzearen den euskal kultur munduarekiko aitortza egin eta irtenbideak proposatu

beharrean, berriz ere baztertuta utzi gaituzte. Ez da kasualitatea. Artea, sormena da, mugimendua da. Dinamismoa. Norbanakoak eta ondorioz, gizarteak astintzeko eta eraldatzeko gaitasuna duen motore iraultzailea.

Beraz, arestian aipatu bezala, sortzaileentzako une latz hauetan, inoiz baino garrantzitsuagoa ikusten dugu artetaren arteko sareak eraiki eta elkar babestearekin batera, dinamika amankomunak eratzea. Bide horretan, “Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak” proiektua hiru helburu nagusiren baitan hasi da forma hartzen:

Buruntzaldeko gazte sortzaileok elkar ezagutu eta saretzeko. Horretarako Buruntzaldeko Gazte Sortzaileen Plaza sortu dugu. Eskualdeko sortzaileen topagune eta elkar harremantze tresna izateko helburuarekin diseinatu dugun plataforma digitala. Bertan, Buruntzaldeko sortzaile ezberdinen profilak, kultur ekimenen agenda, Buruntzaldeko Gazte Sortzaileen dinamiken argibideak, proiektu berrien eta artista berrien beharren anuntzio taulak... eta bestelakoak bildu nahi ditugu. Horretarako, plataformako atarian topa dezakezun galdetegi batetzearekin nahikoa da.

Euskal kulturagileok kolektiboki kolpatzen gaituen problematikari modu bateratuan aurre egitea. Gure kultura pairatzen ari den bazterkeria salatu eta honi arnaguneak eskaintzeko ekimenak eta aldarrikapenak gauzatzea dagokigu.

Inguratzen gaituen munduarekiko kritikoa eta komprometitua den kulturagilearen figura aldarrikatzea. Horretarako, gure eskualdeko herriak zipriztinduko dituen artetintza dinamika eta gogoeta proiektuen gauzatzea dugu xede. Beraz, helburu hauen bidean, dei egiten diegu eskualdeko gazte sortzaile sentitzen den edonori, plataforman izena eman dezan. Eman izena Buruntzaldeko Gazte Sortzaileen Plazan.

Azkenik, hil honetan zehar dinamika aurkezpen presentzialak egiteko asmoa dugu. Jarraian datozen data eta herrietan, kokapen zehatzak datozen egunetan argituko ditugu:

Datozen hitzorduak

Hernani:
Urriak 15, Osteguna. 18:00.
Lasarte-Oria:
Urriak 16, Ostirala. 18:00.
Usurbil:
Urriak 22, Osteguna. 18:00.

Harremanetarako:

buruntzasortzaileak@gmail.com.



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:
Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).

Diseinua: Goiñena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537

Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



andoaINDARRA
euskaraz

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



2018koa izan zen Euskaraldiaren lehen edizioa. San Juan plazan ateratako argazkian ikus daitekeenez, erantzun zabala izan zuen deialdiak. AIURRI

Ariketa kolektibo berria iristear da

Euskaraldiaren bigarren edizioan Ahobizi edo Belarriprest modura izena emateko aukera zabalik dago Euskaraldia.eus webgunean. Laster, Andoainen eta Urnietan bertan izena emateko aukera izango da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan. Horixe da helburua, eta goiburua. Aritzea garrantzitsua baita. Bikain hitz egiten duenak, jarrai dezala bide berean. Euskararen bidean ari denak zabalik aurki ditzala euskaldunen belarriak, hitz egiteko prest egongo baitira. Hortik datoz Belarriprest eta Ahobizi rolak, 2018an aski ezagunak bilakatu zirenak. Aurtengoak elementu berria izango du, Aritzearen izenekoak. Euskaraz gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin aritzeko espazioak behar-beharrezkoak direlako. Osasun Alarma egoerak zaildu arren, euskaraz aritzeko aukera ez da alde batera utzi behar.

Aurkezpen ekitaldia Andoainen

Euskaraldiak aurkezpen ekitaldia egingo du Andoainen, datorren urriaren 22an. Bastero Kulturgunean izango da, iluntzeko 19:00tan hasita. Ekitaldi horren osagaietako herritarrak izatea nahi dute, eta horretarako bideoak helarazteko ekimena aurkeztu dute. Bideo laburrak nahi dituzte, norbanakoek bidalitakoak. Eskuko telefonoarekin grabatu eta andoain@euskaraldia.eus e-postara helarazi behar dira. Bideoa grabatzeko xehetasunak, hauexek:

- Bideoa horizontalean grabatu behar da.
- Grabatutako bideoa urriaren 12a baino lehen bidali behar da.



Urnietako EAJ-PNV alderdiaren Uri Buru Batzarrak agerraldia deitu zuen ostiralean, albistearen berri emateko. Bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. Bertan jasotzen dira Pagolaren, Seguradoreen eta Vaqueroreen adierazpenak. AIURRI

Jorge Seguradok Mikel Pagola ordezkatzuko du

Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetza zuzendari izendatuko dute Mikel Pagola, eta hori alkate postuarekin baterazina da. EAJ-PNVk orain arteko ildoari eutsi nahi diotela ziurtatu du, Jorge Segurado alkate izendatuz. Datorren astean gauzatuko da aldaketa

Jon Ander Ubeda URNIETA

Ezuste handia eman zuen gobernu taldeak, aurreko astearen amaieran. Mikel Pagolaren dimisioa iragarri zuten, haren lekukoa Jorge Segurado zinegotziak hartuko zuela adieraztearekin batera. Politikan ez dira horrelakoak maiz gertatzen, eta ohikoan alkateek agintaldi osoa egin ohi dute. Nolanahi ere, eskualdean bi kasu antzeko gertatu dira. Lasarte-orian Zaballos sozialistak dimisioa eman zuen, duela hilabete batzuk. Eta egun hauetan Pagola izan da albiste.

Denbora beretsuan gertatu badira ere, arrazoiak oso bestelakoak dira. Lasarte-arrak arrazoi pertsonalak argudiatu zituen, eta politikatik aldentzea erabaki zuen. Mikel Pagolaren kasuan, arrazoiak profesionalak dira. Eta, neurri batean, baita politikak ere. Izan ere, alderdiak Foru Aldundiko zuzendaritza postua hartzeko eskaera luzatu dio eta honek onartu egin du. Aldundiko lanpostua eta alkate-tza bateraezinak direnez, Mikel Pagolaren hirugarren agintaldia hasi eta gutxira amaituko da.

Jorge Segurado, alkate

Eskarmentua badu udaletxe barruan, eta ostiraleko agerraldian gogotsu zegoela adierazi zuen. Erronka handi samarra dauka parean, baina Mikel Pagola ez da urruti ibiliko. Zinegotzi postuan eta alderdiko bozeramaile lanetan jarraituko baitu. Ostiral iluntzean Urnietako Uri Buru Batzarrak normaltasun irudia eman nahi izan zuen. Amaia Vaquerok zuzendutako agerraldian, egitasmo politikoa berbera izango dela azpimarratu zuen.

Hiru Udal hauteskundeetan garaile



Mikel Pagola hautagaia, 2011ko apirilean. AIURRI

2011-2015 Kultur teknikari modura lanean aritu zen ordura arte, Urnietako Udaletxean. Mikel Izagirrearen agintaldia eta gero, EAJ-PNVk Urnietan aski ezaguna zen pertsona aurkeztu zuen. Aita gogoan, Pagolak aurkezpen ekitaldi hunkigarria egin zuen.



2015eko maiatzean Batzokiaren parean egin zuten agerraldia. AIURRI

2015-2019 Lehen agintaldia eta gero, garaipena berretsi nahi izan zuten jeltzaleek. Eta nola, gainera. Bigarren saiakeran Mikel Pagolaren hautagaitzak gehiengo osoa eskuratu zuen. Jorge Seguradok ardura handiak hartu zituen udalgintzan.



Jeltzaleak 2019ko hauteskunde gauan, garaipena ospatzen ari zirela. AIURRI

2019-2023 Mikel Pagola alkatearen tiroiari eutsi eta hautagaitza eraberritua aurkeztu zuen EAJ-PNVk. Gehiengo osoa berretsi zuen, hirugarren agintaldiari hasiera emateko. Hauteskunde gau hartan, jeltzaleak pozarren zeuden.

Kultur jardueren aldeko apustua udazken honetan

David Rosco zinegotziak eta Iñaki Otamendi Kultur teknikariak udazkeneko programazioaren berri eman zuten, asteartean deitu zuten agerraldian. Herriko eragile ezberdinek parte hartu dute egitarauaren osaketan

Mikel Arberas URNIETA

Urnietako Udalak urrirako eta azarorako antolatu dituen kultur ekitaldien aurkezpena egin berri du. Emankizun ugari egingo dira datozen bi hilabeteetan, batetik, Urnietan kultur eskaintza oparoa ahalbidetzeko; eta bestetik, koronabirusaren eraginagatik bertan behera geratu diren saioak berreskuratzeko.

Une zail hauetan, eta kulturalari balioa ematen jarraitu asmoz, Udalak eta Poxta Zahar gazte elkarteak hainbat jarduera antolatu dituzte udazkenarako. "UdazkeneanK" izena hartu du ekimenak, eta segurtasun neurri guztiak bermatuko direla ziurtatu zuten. Eskaintza oso zabala da, adin guztietako pertsoneri zuzendua.

Sarrerei dagokienez, Udalak antolaturiko ekintzetan bi sarre-rako lau sorta zozkatuko dira ikuskizuna baino bi aste lehenago. Eta sarreren aurre-salmenta aste-bete lehenago jarriko dute martxan. Era berean, sarrerak internet bidez eskuratzeko aukera ere ahalbidetuko dute.

Udalak antolaturiko doako ekintzetan berriz, gonbidapenak Saroben izango dira eskuragai. Ipuin kontaketen kasuan, ostera, edukiera bete arte egongo da bertara sartzeko aukera.



David Rosco zinegotzia eta Iñaki Otamendi kultur teknikaria. AIURRI

Iñaki Otamendi Udal kultura teknikariak programazioaren inguruko xehetasunak eskaini zituen: "Genero eta ikuskizun ezberdinak sartzen saiatu eta konfinamendu garaian bertan behera geratu ziren ekitaldiak berreskuratzen aritu gara. Ekintza berriak ere sartu ditugu egitarauan, garaian garai-koak".

Mota guztietako artistak ekar-tzen saiatzen ari dira; "Profesionalak, amateurak edota herrikoak. Gauzak horrela, la-

ESKAINITZA ZABALA AURKEZTU DUTE, ADIN TARTE GUZTIAK KONTUTAN HARTUTA

runbat honetan egingo da lehen kultur emanaldia, "Kutsidazu Bidea, Ixabel" antzerki musika-laren izeneko. Demode Quartet talde ezagunaren eskutik, aurre estreinaldia izango da.



"Erradikalak ginen", bertsoa eta antzerkia. Feminismotik, eta umorez. AIURRI

Urriko lehen hitzorduak

Urriak 10, larunbata
"Kutsidazu bidea Ixabel".
Antzerki musikala.
19:00. Sarobe. 5 euro.

Urriak 24, larunbata.
"Baldin bada".
Kale antzerkia.
18:00. Egape. Dohainik.

Urriak 15, osteguna
"Antonio Garmendia,
Urnietako azken zesterora".
Hitzaldia.
19:00. Sarobe. Dohainik.

Urriak 24, larunbata
"Erradikalak ginen".
Antzerkia eta bertsoa.
19:00. Sarobe. Dohainik.

Urriak 16, ostirala
Marisa Tabernero.
Ipuin kontaketa saioa.
17:30. Lekaio. Doan.

Urriak 25, igandea
Puro Relajo.
Kontzertua.
18:00. Egape. 5 euro.
Gaztelera.

Urriak 17, larunbata
Kyxo eta Gartxot.
Kontzertua.
19:00. Sarobe. Dohainik.

Urriak 30, ostirala
Marisa Tabernero.
17:30. Lekaio. Doan.

Urriak 18, igandea
Aioko-Zurrunka teatroa.
Antzerki emanaldia.
18:00. Sarobe. 3 euro.

Urriak 30, ostirala
JMartina-Ameba.
Kontzertua.
19:00. Sarobe. Dohainik.

Urriak 23, ostirala
Ixabel Agirresarobe.
Ipuin kontaketa saioa.
17:30. Lekaio. Dohainik.

Urriak 31, larunbata
"Jimena ¿Y ahora que?".
Antzerki musikala.
19:00. Sarobe. 5 euro.
Gaztelera.

Erosketa bonoak Saroben

Herri barruko kontsumoa sustatzeko, erosketa bonoak sustatu ditu Urnietako Udalak. Aurrerantzean Saroben hartu ahal izango dira bono horiek. 20 euro ordainduta, 30 euroko erosketa egin ahal izango da. Ezinbestekoa da alde zuretzat hitzordua eskatzea. Hiru bide daude: APParen erabilera, Urnieta.eus gunea edo 688 720 742 telefono zenbakia.



AIURRI



Xabier Lasa ANDOAIN

Karrika auzoko Aiztondo kalea bukatu eta Etxeberrieta auzoko Martin Ugalde kalea hasten den eremuan, urte luzez bere horretan dirauen hesitura dago. Lurrazpira jaisteko aldapa zatar bat, lokal komertzialerako baimena izan eta garaje bilakaturako zazpi gunera iristeko. Eta Etxeberrietatik Karrikara igarotzen diren dozenaka herritarrentzat, espaloiarekin muga egiten duen metro eta erdiko zabalera duen zulo bat. Haurrei begira, bereziki, arriskutsua dena.

2006ra egin behar da atzera, arazoaren jatorria jakite aldera. Algodonerako Emakumeen plazako etxebizitzak eraiki ziren orduan; gizarte-etxebizitzak izan ziren, eta Eusko Jaurlaritzak sustatzailea. Kale-ingurune guztia urbanizatzeko orduan, kaleko errepidea egin bai, baina errematatu gabe utzi zuten ingurua. Alberto Pecharromanen hitzetan, "Etxebizitza-sustatzaileak ez zuen interesik jarri dena urbanizatuta uzteko. Eta Jaurlaritzak ere ez zion derrigortu ezer egitera. Hor du jatorria arazoak. Geroztik, bizilagunok orduko utzikeria ari gara jasaten".

Pecharromanek zehaztu duenez, Algodonerako Emakumeen plazako bizilagunek arazo bati baino gehiagori egin behar diote aurre egunero, orain hamabost urtetik hona. "Hasteko, irisgarritasunarekin zerikusia daukan traba dago, etxe aurreko espaloia bi lekutan estutu egiten da, eta metro eskaseko pasabideak geratzen dira bi leketan, hortik oinez doazen auzokoen ez ezik baita ere Andoingo herritar guztien kalterako. Legeak dio gutxienez metro eta erdiko zabalera eduki behar dutela halako espaloiek. Egin kontu, bizilagunen bati larrialdiren bat gertatuz gero, erizainak ozta-ozta pasako lirateke anbulantziako beren kamillarekin bi pasabide horietatik. Are gehiago, badaukagu eskarmentua orain urte batzuk gertatu zen sute baten kontura: su hartu zuen etxebizitza batek, eta suhiltzaileek komeriak izan zituzten beren tresnariarekin mugi ahal izateko".

Aldi berean, plazaren eta lurazpiko zazpi garajeen artean dauden horma zein beheko "zulo" iluna ere ezin dira libratu kritiketatik, Pecharromanen ustez. "Batetik, arriskutsua da eremu horretatik behera umeren bat



Alberto Pecharroman auzotarra kexu da etxe ondoan duen utzikeria ikusita. Urte luzeko kontua da, gainera. AIURRI

Utzikeriak jota, gune arriskutsua Karrika aldean

Martin Ugalde kalean, Algodonerako Emakumeen plazaren parean, bere garaian urbanistikoki konpondu gabe utzi zen eremu bat dago. Bertan bizi den Alberto Pecharromanek egoeraren inguruko administrazioaren utzikeria salatu du

deskuidatuta eror litekeelako, jolasean ari dela edo baloi baten atzetik doala. Eta bestetik, zikina pilatzen da jendeak goitik jaurtitzen dituen zakarrekin; arratoiak ere ikusi izan dira bertan. Udalak dio leku pribatua dela eta ez dagokiola berari garbitasun lana egitea".

"ARRISKUTSUA DA EREMU HORRETATIK BEHERA HAURREN BAT DESKUIDATUTA EROR LITEKEELAKO"

Irtenbidea, eskura

Bizilagunak irtenbidea eskatzen aspaldidanik dabilzan arren, arazoak bere horretan jarraitzen duela esan du Pecharromanek, haserre ezin ezkatutaz. "Aurreko legegintzaldian zein oraingoan, bi alkateekin maiz hitz egin izan dut, baina denbora pasatzen da eta ez da ezer aurreratzen. Ana Carrereren garaian beheko garajetako itoteak konpondu ziren, goian asfalto berria ipinita. Baina gehiago ez da egin".

Pecharromanek argi dauka nori dagokion arazoaren eran-

tzukizuna: "bi administrazioek, Eusko Jaurlaritzak eta Andoingo Udalak arazo honetan elkar hartu beharko lukete, albo batera utziz iraganean egon diren ezin konponduak".

Borondatea jarritz eta obra bat aurrera eramanez konpon litekeela arazoa, gehitu du. "Bizi-

"JAURLARITZAK ETA UDALAK ARAZO HONETAN ELKAR HARTU BEHARKO LUKETE"

lagunon garaje komunitarioa eta lurrazpiko zazpi garaje horiek maila berean daude, eta beraz, bi eremuak bereizten dituen horma bota liteke; era horretan, kaleko garaje horietako jabeek sarbidea gure garajetik egiteko eskubidea edukiko lukete. Obra horrek gutxi gora behera zenbateko kostua izango lukeen ere esan izan zaigu administrazioetik, noizbait: milioi bat euro. Irtenbide horrek bizilagunok ez ezik lurpeko garajeen jabeak ere aseko lituzke".

Ekimenak, protesta gisa

Gauzak horrela, orain jarri diren eta hurrengo aste eta hilabeteetan abian jarriko diren zenbait ekimen iragarri ditu. "Bizilagunen komunitateak urteak damara konponbidea eskatzen, eta etsia hartuta, ekintzari heltzeko ordua iritsi da. Dagoeneko, bidean da ingurune guztiarekin lotutako segurtasun peritutzak. Txosten horren emaitzak jakin ostean, bizilagunen artean sinadura bilketa helduko da. Halaber, Eusko Jaurlaritzari, edozein erakunde eratu berriari eskaintzen zaizkion graziak ehun egun eman ondoren, ez badu proposamenik luzatu, Arartekora joan beharko da, ea instantzia horrek kasu egiten digun".

Aiurri.eus gunean inguru horren egoera islatzen duen bideoa ikusgai dago.



EH Bilduk agerraldia egin zuen Zumea kalean duen Bilgunean. Bideoa Aiurri.eus gunean ikusgai dago. AIURRI

Berraktibaziorako plana aurkeztu du EH Bilduk

Ordenantza fiskaletan Koronabirusaren krisiak sortutako kaltea kontutan hartzeko proposatu dute, Gobernu taldeak iragarritako dirulaguntza guztiaren heren bat soilik erabili dela salatzearekin batera

Mikel Arberas ANDOAIN

Gobernu taldeak egin gabe utzi duena gogora ekarri dio EH Bilduk, joan zen ostiralean egin zuten agerraldian. Andoni Alvarez Lete buru den alderdiak ziurtatu duenez, Andoaingo Udalak iragarritako dirulaguntzeta-rik herena besterik ez da erabili: "Andoaingo enpresa txikien eta norbanako nahiz familien ekonomia egoera larrian dago. Udalak aurtengo ekainean berraktibazio plan bat onartu zuen, baina gure ustez dirulaguntzen atalean egindakoa gainbegiratu behar da. 600.000 euroko dirulaguntzak iragarri ziren, eta horietatik 183.000 euro besterik ez dira erabili. Ez da zuzena 600.000 euroko laguntza iragartzea, eta herena soilik banatzea. Ez da zuzena gauzak horrela uztea".

Berraktibaziorako bi ardatzak

Sustapen ekonomikoko batzordea: "Bertan, merkatari, ostalari eta autonomoen egoera zein den aztertuko duen diagnostiko bat egitea proposatu dugu. Gure ustez, maiztzean egin behar zena. Orain egiten bada, jakingo genuke zein sektoretan hasi diren

egoera bideratzen eta zeintzuk diren gaizki doazenak. Horren arabera, dirulaguntza lerro berriak jarri beharko genituzke martxan bere jarduna berraktibatzeke zailtasunak dituzten sektoreei begira. Adibidez; ostalaritza, turismo sektorea edo kultura sektorea".

2021eko ordenatza fiskalari dagokionez: "Udalak malgutasunez jokatu behar du. Udalak zorionez, gerakin handia du. Eta beraz, diru bilketan jeitsiera bat onar dezake. Oro har, tasak izozteko egiten den proposamena ez da nahikoa. Hauek gure proposamenak: OHZ eta trakzio mekanikodun ibilgailuen zergan ordainketa frakzionatua egiteko aukera eskaintzea, langabezia edo ERTE egoeran daudenentzat; Ostalaritzan %100eko salbuespena 2020an eskatutako terrazen mahai kopurua kontutan hartuta, eta ura eta hondakinen bilketa zergetan %50eko salbuespena egitea; Ondasun higiezinaren gaineko zergan %100eko salbuespena lokalaren hipoteka edo alokairua ordaintzen diren kasuan.

Gehiago, gehiagotan, gehiagorekin

EUSKARALDIA ANDOAINEN

Aurkezpen ekitaldia
Urriak 22, osteguna
19:00 Bastero Kulturgunea



Ahobizi, Belarriprest... parte har ezazu, bideoa helaraziz:

- Parte hartzea sustatzeko bideo laburra graba ezazu.
- Eskuko telefonoarekin, modu horizontalean erraz egin daiteke.
- Urriaren 12a baino lehen bidaliezaguzu.
- E-posta: andoain@euskaraldia.eus



Karobia piztu ezinik, ekitaldia Sorabillako elizaren arkupeetan egin zuten. Amaieran denak argazkirako bildu ziren. AIURRI

Burdinaren omenaldi bikoitza

Sorabillan antolatu zuten ekitaldian Manu Izagirre eta Joxe Pablo Usandizaga kideen memoria bizirik dagoela berretsi zuten. Ekitaldi berean omenaldia egin zieten osasun krisialdian hildakoei edo gaizki igarotzen ari direnei ere



Burdinako hildako kideak eta Koronabirusak eragindakoak gogoan hartu zituzten. AIURRI

Omenaldi ekitaldia

Aurtengo edizioan Koronabirusak eragindako hildakoak gogoan hartu zituzten. Baita gaixotu direnak ere. Larunbat iluntzean Sorabillan egin zuten ekitaldiaren bideoa Aiurri.eus webgunean ikusgai dago, bideoen atalean.

baino. Txistua eta txalaparta joz, dantza eginez, mokaduak janez...". Filosofia horri eutsirik, Miren Lopez de Munain eta Ekaitz Ollo txalapartariak eta Jon eta Beñat Beloki bertsolariak Sorabillako ekitaldiari hasiera eman zioten. Eta segidan, Xabier Cabezón txistulariak eta Unai Barrutia dantzariak aureskua eskaini zieten Burdinako kide izan ziren Manu Izagirre eta Joxe Pablo Usandizagaren senitarteko eta adiskideei.

Aureskua zein lore-eskaintza osasun krisialdia zuzenki jasan duten pertsonei ere luzatu nahi izan zieten; eta hain zuzen, Burdinako boluntarioa den Patxi Aznar ere aipatu zuten, gaixotasuna gainditu duen herriki-deetako bat baita.

Izagirre eta Usandizaga gogoan

Joxerramon Berrondo taldeko kideak, azkenik, Izagirreri eta Usandizagari buruzko aipamenak eskaini zituen: "Joxe Pablo gizon xumea eta langilea zen, eta besteek zer agindu, hura zintzo bete egiten zuen. Manu, gizon jantzia bezain atsegina zen. Izugarri zekien, baina inoiz inori ez zion goitik behera begiratu; modu transbersalean eratzen zituen harremanak. Bazekien gutako bakoitzak zenbateko ekarpena egin dezakeen, eta horrexegatik, talde kohesioa osatzea izaten zen bere gogoan. Biak ere, herri-gintzan aritu ziren gogotik. Aho betean hitz egin dezakegu herri-gintza gora eta herri-gintza behera, baina biak ekintzaileak ziren. Burdinako boluntarioek asko daukagu eurengandik ikasteko, erreferenteak dira guretzat, eta gogoan hartzen ditugun bitartean geure artean jarraituko dute". Ekimen betean jarraitzea, horixe omenaldi onena.

Xabier Lasa ANDOAIN

Burdina elkartearen lehendabiziko asmoa Ortzaikako karobia piztea zen, baina eguraldia hain txarra izanik Sorabillara eraman zuten ekitaldia. Ander Otaño taldeko kideak udal ezberdinetako ordezkariak eskerrak eman zizkien, Burdinari kultur ondarea berreskuratzeko eta zabalatzeko laguntza eskaintzen diotelako. Hori esanda, ekitaldiaren zergatia azaldu zuen: "Urtero antolatzen dugun Ortzaikako karobiaren piztuerarekin, gure arbasoek karobiaren inguruko errituala nola bizi ohi zuten modu sinbolikoan adierazi nahi izaten dugu. Karobia piztu eta karea egin ostean, egoki ikusten zuten festa antolatzea; iruditzen zitzaien egindako ahaleginak bere emaitzak ekartzen zituela berarekin, eta horrek aitormena merezi zuela. Eta zer hobe aitormen hori, festa giroan egitea







Keinu denda Andoaingo Kale Nagusian dago. AIURRI

Telazko musukoak, berme guztiekin egindakoak

Andoaingo Keinu denda berme guztiak eskaintzen dituzten musukoak egiten dituzte

Keinu
Babestutako edukia
ANDOAIN

Keinun telazko musukoak egiten dira. Oro har, maskaren gaineko desinformazioa handia dago; izan ere, herritarrek gehiago erreparatu behar dute itxuran eta diseinuan, materialean baino. Xehetasun hauek kontutan hartu behar dira:

- Barnealdeko materialak kotoizkoa izan behar du, koronabirusak iraupen denbora murriztagoa duen materiala baita.
- UNE65: 2020 araudiak ezarritakoa ziurtatua egon behar du, hau da, maskarak iragazteko gaitasuna eduki behar du. Baita garbitu osten ere.
- Telazkoak direnak eguneroko garbitu behar dira xaboiarekin, edota garbigailuan sartuta. 60 gradutara garbitzea gomendatzen da eta lehortuta dagoenean soilik jantzi beharko da.

Gauzak horrela, Keinu birsortu egin gara. Musukoen salmentan eta diseinuan espezializatu gara, norbanakoei edota enpresei begira. Produktuaren kalitatea ziurtatzen dugu.

Etorkizuna?

Baikor izatera behartuta gaude. Ez dugu normaltasun berria gustuko, beraz, ez dugu etsiko. Guztiok lehengo bizimodua berreskuratzea nahi dugu, eta ez dugu ahaztu behar, zein garrantzitsua den sozializatzea. Besteak beste gure kulturaren alde eta geure ohituren alde egiteko. Horregatik, musukoez gain, ohiko txapelak eta base-rritar jantziak egiten eta saltzen jarraituko dugu Keinu denda. Zatoz gure eskaintza osoa ikustera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

943 02 96 76 / 637 28 32 24.
keinuandoain@gmail.com
txapelaketabordatuak.eus
Facebook: keinu.andoain
Kale Nagusia, 12.



Salkineko kideak Agustin Leitza kaleko egoitzaren kanpoaldean. AIURRI

Dendarien egoitza berria Agustin Leitza Kalean

Agustin Leitza kaleko 11 zenbakian zabaldu dute Andoaingo merkatarien egoitza berria

Salkin
Babestutako edukia
ANDOAIN

Andoaingo Udalak eta Salkin elkarteak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, zeinaren bitartez merkatarien elkarteak Agustin Leitza kalean egoitza berria izango duen. Udalak Salkini egin dion proposamenaren aitorpenaren konfirmazioa izan da. Udalak urteko 4.000 euroko ekarpena egingo dio Salkini. Hiru urteko iraupena izango du hitzarmenak, Salkinek "herritarrekin izan behar duen zuzeneko presentzia hobetzeko asmoz".

Lokala herritarren artean ezagun egiteko, udaren hasieran bono-kanpaina Salkineko egoitza berrian egokituko da.



Astelehenetik ostiralera mila lagun bertatik pasako dira, goizez eta arratsaldean, erosketa bonoa eskuratzeko asmoz. Bost egunetan, beraz, herrikide kopuru handi bat egoitza berrik igaroko da. Zatoz, eta ezagutu ezazu.

INFORMAZIO GEHIAGO:

FB: @salkinmerkatariei
Instagram: @salkin_andoain
Agustin Leitza, 11.



Udal ordezkariak bono bidezko kanpaina iragarri zuten, ekitaldi berean.



Urrats inprimategia Andoaingo Zumea kalean dago. AIURRI

Hamar urte betetzear da Urrats inprimategia

Eguberriari begira bi aholku: Urrats prest dagoela, eta herrian kontsumitzea garrantzitsua dela

Urrats inprimategia
Babestutako edukia
ANDOAIN

Azaroaren 22an egingo ditugu hamar urte inprimategia ireki genuela. Orduan ere ez zen garai erraza izan, krisiaren erdi erdian ireki genulako, eta orain ere ez zaigu egoera erraza tokatu aurtengoan. Baina lehen aurrera ateratu ginen eta berriro ere aterako gara, izan ere zorionez Andoainaren eta inguruko herrietan bezero on asko dugu.

Haserako urteetarik gaurkotxo batzuk aldatu dira gurean, inprenta munduko lan gehiago egiten ditugu orain. Aurrez aurreko bezeroari ere eskaintza zabaldu diogu, opari pertsonalizatu asko egiten baitugu. Jendeak gustoko izaten du opariak pertsonalizatzea, beste balio bat hartzen duelako opariak. Adin ezberdinetarako opariak ditugu: Puzzleak, katiluak, harriarekin egindako ordulariak... 2021eko

egutegiak ere laister jarriko ditugu martxan.

Bi mezu garrantzitsu

Aurtengo urtea denontzat da zaila, baina Gabonei begira jarri, eta baikor eta lanerako gogoz gaude. Egocera zailari buelta eman behar diogu eta gogoz egingo dugu lan. Aldarte honetaz baliatu nahi dugu herritarrek herrian kontsumitzeko duen garrantzia aldarrikatzeko. Kaleek bizia har dezaten komertzio eta tabernak irekita mantendu behar ditugu. Esfortzu bat egin beharko genuke denok, azken momentuan opariak erostera denda handietara edo internetara jo beharrean, garaiz ibiltzeko eta denda txikietan egiteko.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Telefona: 943 57 52 93.
Whatsappa: 688 618 548.
E-posta: urrats@urratsinprimategia.com
Instagram: urrats2010.
FB: Urrats inprimategia.
Zumea kalea, 19.

KeiNU

Urrats



Unai Ugartemendia andoaindarra eta Iker Karrera amezketarra, liburuaren aurkezpen ekitaldian, Donostian. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Karrerak eliteko korrikalari gisa bizi izan dituen bizipen gozo eta gazien kontakizuna da liburua. Askotan idealizatzen omen den lasterketen mundu hori desmitifikatu nahi izan duela aitortu zuen amezketarrak.

Donostiako Koldo Mitxelena egindako aurkezpenean, Ugartemendiak liburuaren ideia nondik nora sortu zen azaldu zuen: “2018ko abuztuan, Mont Blanco ultratraila lasterketa egitera zihoala, dortsala azken aldiz janztera zihoala iragarri zuen Ikerrek. Denok aztoratu gintuen iragarpenak. Irabazle gisa irudikatzen genuen lasterketa famatu hartan, baina azkenean utzi behar izan zuen min hartuta. Berriak kazetari gisa, hurrengo egunerako elkarriketa eskatu nion. Lehenengo aldia zen fisikoki izorratua sumatu nuela. Baina luze jardun genuen, eta hiru ordu eta erdiko solasaldia izan zen. Kazetaritzan askotan gertatu izan zaigun moduan, zortzi orrialde-tarako ematen zuen elkarriketak. Irakurleak gustura irakurriko lukeena, baina orrialde batera mugatu behar! Bidean hainbat gauza utzi behar!”. Ugartemendiaren ustetan, huraxe izan zen lehenengo zantzua, liburuaren ideia etorkizunean

Iker Karreraren ibilbidea liburura eramane du Unai Ugartemendiak

“Iker Karrera. Bidea ipar” liburua kaleratu dute Amezketa mendiko korrikalariak eta Unai Ugartemendia kazetari andoaindarrak; Donostian eta Tolosan aurkeztu zuten liburua, aurreko astean

taxutzen joan zedin. “2019ko martxoan beroaldi batek jota, Ikerri deitu egin nion, liburuarena proposatzeko. Lehendik ere bazituela beste zenbait proposamen erantzun zidan. Baina nirea hautatu zuen, euskaraz zelako”.

Iker Karreraren biluztea

Munduko mendi korrikalaririk azkarrena eta ospetsuena den Kilian Jornetek sinatu du liburuaren hitzaurrea. Hauxe, hasiera: “Iker ezagutu nuenean, irribarre egiten jakingo ote zuen galdetu nion nire buruari”.

Izan ere, hitzaurrean azaltzen duenez, 2011ko Chamonixeko podiumean bat egin zutenean, une berezi hura poza adierazteko, txanpaina zabaltzeko tenorea izan arren, “Ikerren ahoak lerro lau perfektua erakusten” zuela adierazten du Jornetek.

Berak irabazi zuen, eta Karrera bigarren izan zen.

Ugartemendiak aitortu zuen zenbaitek galdetu diotela ea erraza egin ote zaion Karrerari mihitik tiraka egitea: “Erronka handia zen niretzat, baina oso erraz jarri dizkit gauzak. Memoriatik hasita, izan ere, kapaz da halako lasterketako kilometro jakin batean zer gertatu zitzaion gogoratzeko. Alde horretatik, oso gutxitan jo behar izan dut dokumentatzera”. Galdera eta erantzunen formatuan idatzita dago, eta filtrorik gabeko liburua dela zehaztu nahi izan zuen Ugartemendiak. “Bera asko biluztu da, gauzak argi azaldu ditu, bere ibilbide osoan erakutsi izan duen argitasun horrekin”.

Galdera eta erantzunaren formula Ikerren kasuan egokiena zela gehitu zuen Ugartemendiak. “Uste dut Iker pertsonarik proposena dela horretarako. Oso zintzoa izan da nik egin dizkiodan elkarriketa saio guztietan. Autobiografietan, maiz gauzak edertzeko joera egoten da; baina ni ez naiz esajeratu zalea, eta bera gutxiago. Hortaz, berak esan ahala idatzi dut”.

Karrerak, aurkezpenean, Ugartemendiak aipatutako biluzte horren inguruko ñabardura egin nahi izan zuen, umore metaforikoki segida emanez. “Biluztu-biluztu ez naiz egin, galtzontziloak behintzat gorde ditut, pasarteren batean pisu kritikoa igual kendu egin baitut. Baina zintzoa izaten saiatu naiz, eta miseria asko kontatu ditut, nahiz ez den-denak. Normala da gordeta gelditzea zerbait, beti...”.

“Bere egia” kontatu duela gehitu zuen Karrerak. “Gertaizunak nire begietatik ikusi eta sentitu ditudan moduan kontatu ditut”.

Desmitifikazioaren premiaz ere mintzatu zen Karrera. “Beste kirolekin bezala, mendiko lasterketen munduan ere bada go mitifikazioarako edo ekintza heroikoak kontatzeko joera, eta hori pixka bat barruz hustu nahi izan dugu”.

Liburua, euskaraz

Ikerrek aurkezpenean aitortu zuen liburua idazteko jaso zituen proposamenen artean, euskaraz izatea funtsezko baldintza izan zela, eta horrexegatik esan zio la baietz Ugartemendiari.



Manuel Otxotorena, Patxi Irizar Garro eta Migel Arrieta, Goiburuko jaietan 1949an korrika desafio ikusgarria eskaini zuten. ARRIETA ETXEBERRIA FAMILIA

1934ko jaiak Xoxokan

Orduko egunkarietan arakatuz, Goiburu bezala ezagunak ziren jaien kronikak topatu ditugu. Orain bezala, lehen ere kirol jarduerak garrantzia handia zuten Urnietako landa eremuko jaietan

Xabier Lasa ANDOAIN

II. Errepublikan zehar (1931-1936) Urnietan indartsuen ziren nazionalisten eta tradizionalista-karlisten bi familia politikoaren arteko xextrak 1934ko Sanmieletan nola islatu ziren aipatu genuen aurreko asteko Aiurri. Bada, lehia horrek segida izan zuen Goiburu auzoko jaietan, Sanmielen jaien osteko astean heldu zirenak.

Udalaren inguruko testuinguru politikoa gogoratu beharko dugu, labor-labur. Primo de Riveraren diktadura eraistea eta Alfonso XIIIk Frantziara ihes egitea eragin zuten 1931eko apirilko udal hauteskundearen ostean, hamar abertzalek osatu zuten Urnietako udal korporazioa.

Jose Mari Belauntzaran alkate zelarik. 1934eko irailaren hasieran, ordea, dimisioa aurkeztu zuten guztiek, Euskal Herriko gainerako alkate eta zinegotzi nazionalista eta sozialisten antzera. Izan ere, eskuinteko errepublikano Lerrouxek gobernuak ardoaren estatutuari (desgrabazio fiskalaren aldekoa) buruzko lege-proposamenari ezezko biribila nahi izan zioten horrela, Kontzertu Ekonomikoaren eta udal autonomiaren kontrako erasotzat jo eta gero.

Gipuzkoako gainerako herrietan bezala, Urnietan ere gobernadore zibilak Batzorde Kudeatzailea izendatu zuen; herriko karlista eta tradizionalistak

hautatu zituen Urnietako gobernatzeko, eta horiek irailaren 15ean hartu zuten agintea. Egundorretan bertatik hasita, udal talde berriak egundoko ahalegin propagandistikoa egin zuen herriarren aldeko jarrera irabazteko eta hautes-ontzietako botoek eskaini ez zieten zilegitasun demokratikoa lortzeko asmoz. Kontrara, nazionalistek euren indarrak karlistak desgaitatzera bideratu zituzten.

Horrela, Sanmielak eta Goiburu jaiak erakusleko egokiak bilakatu zitzaizkion Udaltalde berriari, bere burua nabarmentzeko. Nazionalisten eta karlisten arteko xextraren erdi-erdian aurkitu ziren bi jaiak. Aurreko asteko Aiurriren zenbakian,

jada Sanmiel jaien testuinguruan gertatutakoak izan genituen hizpide hizpide.

Ondoren heldu ziren Goiburu auzoko jaien inguruan, berriz, apenas dugun agiri idatzirik, ez bi familia politikoak elkarri mokoka ibili zireneko kontuak argitzeko moduan, ezta ere egoera horrek auzo-giroan eduki zezakeen eragina argitzeko moduan. Soilik *La Constancia* egunkari tradizionalista-karlistan topa daiteke aipamen zehatzaren bat, ideia txikiren bat osatzeko lain. *El Día* egunkari nazionalistak ez zuen deusik idatzi, eta hortaz, alde baten bertsioarekin geratu behar, bestearen faltan.

Horrela, 1934ko urriaren 20an, larunbatarekin, *Betikuak* ezizeneko idazleak kronika idatzi zuen, hurrengo egunean Goiburu auzoan ospatzekoa zen jai egunaren berri emanez, eta urnietarrak animatuz bertara zitezen (bide batez esanda, begi bistan geratzen da idatzian nola isurtzen den Goiburu auzoko baserriarrenganako paternalismoa kutsua):

“(…) Bien se merecen los laboriosos baserriarros de Goiburu que su digno Ayuntamiento les proporcione un día de gran alegría para poder compensar, en parte, los sinsabores y penosos trabajos que proporciona la vida del ca-

1934ko egitaraua Goiburuko jaietan

Egitaraua

Urriak 20, igandea

- Goizez, diana eta suziaren jaurtiketa.
- 10:00 Bi lasterketa, heldu eta gaztetxoak Goiburuko txapelketak.

Sailkapenak

Helduen Lasterketa (2.150 metro):

1. Markos Elizegi (08:40).
2. Juan Aranburu.
3. Agustin Rekalde.
4. Ramon Esnal.
5. Eugenio Usaralde.
6. Fermin Txapartegi.
7. Jose Antonio Juangorena.

Gaztetxoak lasterketa:

1. Nikasio Rezola.
2. Eusebio Orkaizteaguirre.
3. Jose Lasarte.
4. Bonifazio Jangorena.
5. Fernando Lasarte.

- Ondoren, Goiburuko aizkora txapelketa. Sailkapena:

1. Jose Benito Igarategi.
2. Gregorio Ubillos.
3. Juan Kruz Esnal.
4. Domingo Belauntzaran.

13:30 Herri bazkaria.

16:00 Bolo txapelketa. Sailkapena: Hiru parte hartzaile berdinduta geratu ziren: Agustin Agirre, Jose Mari Lizarribar eta Bautista Atxukarro. Laugarren, Joxe Iraola.

16:30 Euskal erromeria. Gipuzkoako akordeoilari famatuaren eta txistularien eta gaiteroen eskutik. Atsedenean, etxafuego eta bengala sortaren erretzea egin zuten.

serío, base y sostén de la economía guipuzcoana. No todo ha de ser trabajar, también es necesario expansionarse un poco para que el espíritu del honrado casero salga de esa monotonía en que suele estar sumido durante el año. Urnietarra, biyar guziok Goiburura, egun eder ta alai bat igaro nai badezute. Biyar arte, ba”.

Urriaren 23an, aurreko igandean ospatutako jaien kronika egin zuen *Betikuak* idazleak, *La Constancia* egunkarian. Herri kiroleko probetan izandako sailkapenak aipatzen hasi aurretik, jai egunaren arrakasta itzela nabarmendu zuen. “(...) *Tiempo espléndido. El astro rey, luciendo sus magnificencias, alegre con sus rubios cabellos el encantador y pintoresco barrio urnietarra de Goiburu. Centenares de caseros de ambos sexos, jóvenes, sanos, alegres y confiados, acceden con sus mejores trajes a celebrar con gran júbilo las estupendas fiestas que nuestro Ayuntamiento ha organizado como colofón de las fiestas patronales de nuestro querido txoko...*”.

kronikan zehar, herriko nazionalisten aurkako mezua zabaldu zuen, jaiei boikota egin nahi izan ziela iradokiz: “(...) *La fobia nacionalista que llegó al extremo de hacer desistir a uno de los músicos actuantes que estaba comprometido para tomar parte en esta romería...*”.



Migel Arrieta korrikalaria, aspaldiko argazkian. ARRIETA ETXEBERRIA FAMILIA

Eta azkenik, Udal agintari berriei koipea galanki ematen segi zuen, irakurleei sinetsarazi nahian eurek izan zirela Goiburuko auzoko jaiak antolatu zituztenak. “(...) *No queremos terminar esta crónica sin felicitar calurosamente al señor Larburu, dignísimo Alcalde y a los*

Señores concejales del barrio de Goiburu como del barrio de Ergoyen y demás ediles que integran nuestra Corporación, por el brillante colofón que han puesto a las estupendas fiestas que con éxito insuperado se han desarrollado en nuestro querido Urnietarra”.



Migel Arrieta. AIURRI

Esna bezala, lastima da ezin izan dugulako topatu jaiei buruzko bestelako agiririk, Betikuak goitizeneko idazlearena kenduta. Gainera, ahozko testigantzen faltan, ezingo dugu jakin zenbateraino izan zen egia idazleak emandako azalpena. Ezin jakin jaien antolaketa benetan udalarena izan ote zen, ala auzotarrena. Ondo dakiguna da gutxienik azken 80 urtetan auzotarren arteko auzolana izan dela jaiak bizirik mantendu dituen, asko jota Udalak diruz lagunduta.

Beste kronika baterako utziko dugu noiz eta zergatik gertatu zen izendapenaren aldaketa “Goiburuko jaiak” izatetik “Xoxokako jaiak” izatera alegia.

Migel Arrieta: eredugarri gazteen inplikazioan

Ez da azken urtetako kontua ikustea auzoko gazteak nola inplikatzaren diren erabat jaietan, bai ekitaldi franko antolatuz eta baita ekitaldi horietan maiz protagonismoa hartuz. Ondo baino hobeto ulertu izan dutela zer den auzolanaren filosofia, alegia. Migel Arrieta Bideburu, Legarralde baserriko semea izan daiteke belaunaldiz belaunaldi auzoaren eta auzotarren alde musutruk jardundako gazte ekintzailearen prototipoa. Aurtengo urtarriaren 4an zendu zen, 88 urte zituela.

40 eta 50eko hamarkadetan, auzoko jaien antolakuntzan. Buru belarri jardun zuen gerra osteko urte triste eta txiroetan jendearentzat “debaldeko festa” ikusgarriak antolatzeko orduan, eta horretarako irudimena eta borondatea erabiliz. Inguruan ziren zenbait bertsolari sonatuekin (Uztapide, Pablo Zubia-rrain *Ernani Txiki*, Jose Luis Lekuona *Lexoti*, Juanito Marko *Altzo...*) bikotea osatu zuen ohol-tzan. Eta hori gutxi ez eta, korrika apustuetan ere parte hartu zuen; esate batera, 1949ko jaietan, lau txandetan Gipuzkoako txapeldun eta behin Espainiako azpitxapeldun izan zen Patxi Irizar *Garro* andoaindarrak, Manuel Otxotorenak eta hiruek desafio ikusgarria eskaini zuten hainbat urnietarren eta inguruko herritarren ikusmina piztuz.

LEKUKOTZAK

Andoaingo gudua

11

ANDOAINGO GUDUA

1837ko irailaren 8tik 16ra bitartean Andoainen eta aldirietan gertaturiko hainbat pasarte liburuxka batean bildu ditu Larramendi Bazkunak.

ANDOAINGO
Delgado, Enaitza eta Stop liburu-dendetan salgai.
2 euro.

Argitalaritza: Argitaletxea

Legintzaile: ANDOAINGO UDALAK

Igor Balerdiren argazkiak Txindoki tabernan ikusgai

Andoaindarraren argazki-sortaz gozatzeko aukera dago Kale Nagusiko tabernan jarritako erakusketan

Erredakzioz ANDOAIN

Andoaingo Kale Nagusi Txindoki tabernak tradizio handia du, ibilbide oparoa osatzen ari baita. Erakusketak ohikoak izaten dira, eta oraingoan Afrika aldera begira jarri dira. Edo hobeto esanda, ikuslegoa Afrikara begira jarri dute. Igor Balerdi andoaindarraren argazkiei tarte eskani diote, oraingoan. Namibian izan zen iaz, eta hango bidaitik oroitzapenak ekarri zituen, argazki modura atera dituenak.



Igor Balerdi. AIURRI



Namibiako paisaiak eta aurpegiak aurki daitezke argazki-erakusketan. AIURRI

Zaintza lanak ardatz hartuta, eskualde mailako jardunaldia

Andoaingo eta Urnietako Berdintasun sailek sustatuta, "Zaintza lanen demokratizaziorantz" izenburupean

Erredakzioz URNIETA

Urriaren 23 eta 24an "Zaintza lanen demokratizaziorantz" jardunaldiak antolatuko dituzte, Hernanin. Aukera ona zaintza lanen inguruan hausnartzeko, eta zaintzaileen errealitatea ezagutzeko. Jardunaldi horietan, gainera, Beterri Buruntzaldeko zaintza erregimenaren diagnostikoa aurkeztuko dute. Dinamizatzaile lanetan Emagin erakunde arituko da, eta parte hartzeko aukera zabalik da. Interesa duenak 943 590 902 telefono zenbakira deitu behar du.

EGITARAUA

Urriak 23, ostirala
Milagrosa, Hernani
17:30 Harrera.

18:00 Zaintzak erdigunera. Zertaz ari gara? Matxalen Legarreta EHUKo irakaslearen eskutik.

19:00 Eskualdeko zaintza erregimenaren diagnostikoaren aurkezpena.

Urriak 24, larunbata
Biteri, Hernani

10:00 Mahai-ingurua: Radars, Maitelan, Herrilab...

12:30 Herri eztabaida.

HITZORDUAK

UDAN ZEHAZ EKITALDIAK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 8

ANDOAIN Argazki-erakusketa

Ondarreta ikastetxeak 50 urte bete ditu eta efemerideari lotutako erakusketa ikusgai dago.

Bastero Kulturgunea.

ANDOAIN Argazki lehiaketa

Udal egutegia osatzeko lehiaketa martxan jarri dute. Aurtengo gaia koloreak dira.

Informazioa: Andoain.eus.

URNIETA Kanpaina

"Erosi Urnietan" bonoen erosketa kanpaina indarrean dago. 20 euroko ordainketarekin, 30 euro gastatu ahal izango dira herriko saltoki askotan.

Informazioa: Urnieta.eus.

ANDOAIN Kanpaina

"Han edo hemen, erosi Andoainen" bonoen erosketa kanpaina. 35 euroko ordainketarekin, 50 euro gastatu ahal izango dira. Urriaren 9a, txartela erosteko azken eguna.

Txartelak: Salkin.

URNIETA Irteera

Bide osasungarriak, irteera Denda Berriren eskutik.

09:30 Denda Berri.



Aski ezaguna den eleberraren egokitzapen musikala egin dute. DEMODE

URNIETA "Kutsidazu bidea Ixabel", musikalaren aurre-estreinaldia

Demode Produkzioak ekoizpen etxeak "Kutsidazu bidea Ixabel" antzerkiaren aurreestreinaldia eskainiko du Saroben. Sarrerak salgai daude Sarobeko bulegoan, eta egunean bertan arratsaldeko 18:00etatik hasita.

Urriak 10, larunbata. 19:00, Sarobe. 5 euro.

OSTIRALA 9

URNIETA Jarduera

Zumba saioa, urriko lehen asteko jardueri amaiera emateko ekitaldia da.

17:30-18:30 Denda Berri.

ASTEARTEA 13

ANDOAIN Odol-emaileak

Egunean bertan hartu behar da hitzordua 943 00 78 84 telefono zenbakira deituta (08:30-14:30).

17:30-20:00. La Salle.

TERTULIA FEMINISTA
Andoaingo Emakumeentzako Jabekuntza Eskola

Feminismo eta Islama

Urriak 16, ostirala
BASTERO KULTURGUNEA
18:30
gaztelaniaz

Maya Amrane

ANDOAINGO UDALA
Emakume eta Gizonen Berdintasun lantzaile

Izan bidea ekimenaren aldarria herriko plazara eraman zuten

Sarek mendiz mendi presoek eskubideen alde deituriko ekimena 2021eko maiatzera atzeratu dute



Zumea plazan elkartu ziren, Andoainen. AIURRI



Kontzejupean egin zuten elkarretaratzea, Urnietan. AIURRI

Enpresetan parte hartzea sustatzeko jardunaldiak

Krisi garaian enpresetan parte-hartzea sustatzeak duen garrantziaz hitz egiteko bilduko dira, ostegun honetan

Erredakzioa URNIETA

Beterri-Buruntza eskualdean parte-hartzean oinarrituriko enpresen ekosistema bat sortzeko helburuz, abian jarri zuten *Beterri Saretuz* programa. Eki-menaren baitan elkartu dira eskualdeko enpresa eta eragile ugari, eta bidean aurrera egiteko Gipuzkoako Foru Aldundia-ren eta Beterri-Buruntza Udalen laguntza izan dute. Lehen pausoa 2019ko azaroaren 7an eman zuten, Orona-Ideon hainbat esperimentzia ezagutaraziz. Otsailaren 13an, berriz, parte-hartzea

bultzatzeko gakoak identifikatu zituzten tailerr baten bidez.

Eduki hori guztia landu eta antolatu ondoren, ostegun honetan proiektuaren bultzatzaileek gida aurkeztuko dute, Hernaniko Biteri kultur etxean egingo duten jardunaldian. Goizeko 9:30an hasi eta 12:30ak arte luzatuko da. Hainbat balio eraldatzaile eta ideietan oinarritutako materiala sortu dute, "enpresetan parte-hartzea sustatzeko lagungarri izan daitekeela-koan eta orain arte egindako lanaren aitortza gisara".

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

HAURRENTZAT


"Pinocho"

Larunbata, 10.
17:00.
Igandea, 11.
17:00.

HELDUENTZAT

"Akelarre"

Larunbata, 10.
19:30, 22:15.
Igandea, 11.
19:30.
Astelehena, 12.
19:30, 22:15.
Ikuslearen eguna.



SINOPSISIA



Akelarre

Zuzendaria: Pablo Agüero. **Gidoia:** Pablo Agüero, Katell Guillou. **Aktoreak:** Amaia Aberasturi, Daniel Chamorro, Iñigo de la Iglesia, Yune Nogueiras, Asier Oruesagasti, Elena Uriz, Garazi Urkola, ... **Herrialdea:** EH (2020). **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 90 min.

Akelarre, Zinemalditik Andoainera

1609. urtea, Euskal Herrian. Itsasora abiatu dira bailarako gizonak, eta Ana oihanean murgilduko da. Gainerako neskekin batera ospakizuna egingo dute. Rostegi epaileak

atxilotu eta sorginkeria leporatuko diote. Beharrezkoa dena egitea erabakiko du, emakumezkoek egia aitortzen ez zuten. Euskal kondaira ezaguna, Basteroko pantailan.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Ainhoa Makazaga Ezkurra
Zorionak zure 27. urtebetetzean. Muxu pottoloak etxekoan partetik!



ANDOAIN
Eneko
Zorionak pottotxo!! 15 urte... zure irrifarrak gozatzeko. Jarraitu jator eta zintzo. Etxekoak.



ANDOAIN
Beñat Setien Iguaran
18 urte!!! Zorionak Beñat! Besarkada bero bat zure familiaren partez.



ANDOAIN
Irene Ormaetxea Lasa
Zorionak Irene! Urriaren 13an 11 urte. Mundial pasa zure egunean, etxekoan partetik.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Aiurri bidez.

Erraza da, eta dohainik!

- Webgunea: www.aiurri.eus.
- Emaila: diseinua@aiurri.eus.
- Whatsapp: 619 163 537.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 10, igandea 11 eta astelehena 12

PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 592 629. Andoain.

URNIETA

Larunbata 10, igandea 11

ALDABE: Perkaiztegi, 8.
943 336 022. Hernani.

Astelehena 12

AGUADO: Kale Nagusia, 21.
943 550 327. Astigarraga.

LAN ESKAINTZA

ANDOAIN

Administraria

Administrari bat behar dugu Aita Larramendi ikastolan. Eskaintza ikusi eta izena emateko, QR kodiguan sartu



behar da. Eskakera aurkezteko epea 2020ko urriaren 16an bukatuko da.



Beterri Saretuz jardunaldia, ostegun honetan Hernanin. BETERRIBURUNTZA

Parte hartzearen garrantzia

Krisi garaian enpresetan parte-hartzea sustatzeak duen garrantziaz hitz egiteko bilduko dira, beraz. Hernaniko Biterira deitu dituzte eskualdeko hainbat enpresa eta eragile.

Koronabirusaren eragina

Aurretik egindako lanaren emaitzak aurkezteaz gain, hilabeteotan Koronabirusak kasuan kasu eragindako krisiari nola aurre egin ere aztertuko dute denen artean.



Hilabete osoan zehar ikusgai izango dira Ondarreta ikastetxearen historia laburbiltzen duten argazkiak. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

“50 pauso istorio bat kontatzeko” argazki erakusketa zabaldu berri dute Basteroko erakusketa aretoan, Ondarreta ikastetxearen ibilbidea irudi bidez azaltzeko. “Eskola publikoak behar eta merezi duen tokia goraipatzeko erakusketa” gisa definitu zuen Maite Petrikorena Ondarreta ikastetxeko zuzendariak.

Erakusketa urriaren 31 bitartean egongo da zabalik, asteleheneetik ostiralera 18:30etik 20:00era (asteartetan itxita), eta larunbatetan 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era.

250 argazkiez gain, iraganeko hezkuntzan ohikoak ziren liburu eta altzariak ikusi daitezke. Itsaso Mendiluze izan da erakusketako komisarioa.

Txitxu Ruiz Udaleko Kultura eta hezkuntza zinegotziak hartu zuen hitza, bertako ikaslea izan zela aipatuz: “Pertsonalki ohorea da erakusketa aurkeztea. Ikasle ohi bezala, eskerrik beroena luzatu nahi diet ikastetxeko ordezkariari, Andoainen egin duzuen ibilbideagatik eta hezkuntzan eta kulturaren egin duzuen ekarpen aberatsagatik”.

Maite Petrikorena Ondarretako zuzendariak erakusketaren edukia deskribatu aurretik 50. Urteurrenaren gainerako ospa-

Ondarretaren historia, iruditan

Hezkuntza mailan ibilbide oparoa osatu du Ondarreta ikastetxeak. 50 urte bete dituzte, eta efemeridea borobiltzeko erakusketa antolatu dute Basteron. Hilabete osoan zehar ikusgai izango da. Urriaren 18rako bisitaldi gidatua antolatu dute



Udal ordezkariak zabala elkartu zen Ondarreta ikastetxearen irekiera ekitaldian. AIURRI

kizunak izan zituen hizpide. “Berez, 2019-2020 ikasturtean egokitzen zen ospatzea, baina osasun krisiak dena hankaz gora jarri digu. Aurrikusitako zenbait ekintza burutu ahal izan ditugu, beharbada xumeenak zirenak: jolas-patioan urteurrenako logoa margotzea, ikasle taldeekin argazkiak, ereserkiaren konposaketa, Ondarreta baserriaren irudia jartzea Kale Nagusiko ikastetxearen horman... Baste-rotik erakusketa jartzeko gonbidapena jaso genuen, eta animatu egin ginen. Lan potoloena egin baitzegoen, ordurako”.

Erakusketak, besteak beste, “Colegio Nacional Mixto Ondarreta” izatetik “Ondarreta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea” izatera igaro den hezkuntza proiektuaren 50 urteak islatzen ditu. “Eraikinak agertzen ditu, urtez urte erabili izan direnak: Karrika, Etxeberrieta, Aingurasutegi, Leitizaran, Leitizaran eskola... egungo Arteta (Haur Hezkuntza) eta Ondarreta (Lehen Hezkuntza) eraikinetara iritsi arte”.

Halaber, ikastetxeak euskararekin bizi izan duen eboluzioa ere jasotzen duela erakusketak: “1979-1980an lehenengo irakasle euskaldunak iritsi ziren ikastetxera, eta geroztik ibilbide luzea egin dugu. Hasieran, A eta B ereduak bereiztu ziren, eta 1990-1991. ikasturtean D ereduaren lehenengo taldea martxan jarri zen. Hamar urtetik hona, D eredu bakarrik dugu eskolan”.

Hezkuntza sisteman aitzindari izan dela adierazi zuen Petrikorenak: “1989-1990an bi urteko gelak ireki genituen, Andoainen lehenbiziko aldiz. Arlo pedagogikoan, aurreneko urtetan irakasle bakoitzak bere liburuxka edukitzen zuen, bakoitzak ahal zuena eta zekiena egiten zuelarik. 1995-1996. ikasturtean, ordea, irakasle taldeak Amara Berri sistemaren formakuntza jasotzea erabaki zuen, eta hortik aurrera, 25 urteko esperientzia pilatu dugu. Pandemiak ekarritako ezohiko egoerara egokitzen ari gara, sistema horri uko egin gabe”.

“ESKOLA PUBLIKOAK MEREZI DUEN TOKIA GORAIPATZEKO ERAKUSKETA DA”

MAITE PETRIKORENA, ZUZENDARIA